

NEGOZIO AUKERA BERRIA: ZUBIMUXU ATERPETXEA

Herriaren deskribapena:	
Udalerriaren profila laburra: biztanleen kopurua, kokapen geografikoa (hiri nagusietara dagoen distantzia), ekonomiaren sektore nagusiak, baliabide edo atrakzio turistiko eta ekonomikoak.	
Datu orokorrak	GOIZUETA  Biztanleria: 692 biztanle (INE 2024). Herri txikia eta gertukoa, komunitate sendo eta lagunkoi batekin.  Kokapena: Nafarroako ipar-mendebaldean, Leitzatik 20 km eta Hernanitik 25 km-ra. Donostiatik 45 minutura gutxi gorabehera autoz.  Ingurunea: Haranez eta mendiz inguratua, natura paregabea eta isilpeko paisaiak eskaintzen ditu. Artikutza eta Ibero bezalako eremu natural babestuek gertu ditu, baita ondare megalitikoa ere.  Ekonomia: Nekazaritza, abeltzantza eta basogintza tradizio handikoak dira, baina zerbitzu sektorea eta turismoa gero eta garrantzitsuagoak dira.  Kultura eta nortasuna: Jai tradizio sendoak, euskararen erabilera handia eta herriko elkarte sare aktiboa.  Komunikazioak: Gipuzkoarekin (Hernani, Donostia) eta Nafarroako (Leitza) beste herri nagusiekin lotura erraza errepidez; garraio publiko mugatua, baina Donostia eta inguruko herrietara hurbil.
Zerbitzuak eta baliabideak	○ Zerbitzu publikoak: osasun etxea, eskola, liburutegia, kirol instalazioak. ○ Denda eta ostalaritza sare txikia baina aktiboa. ○ Natura eta aisialdirako guneak (Artikutza, Ibero, mendiko ibilbideak). ○ Tokiko produktuak eta gastronomia aberatsa. ○ Turismo informazioa aterpetxetik. ○ Udalak Cederna Garalurren bitartez (garapen agentzia) ekintzailatzaren sustapenerako laguntza eskeintzen du.
Etxebizitza aukerak	Udalaren ekimenez hainbat proiektu martxan daude, gazteei eta herriko bizilagunei laguntzeko: esku-hartze publikoak eta espazioen eraberritzeak, aukera berriak sortzeko.

<i>Bizilagun berrientzat erraztasunak</i>	◦ Goizueta Pueblos VIVID Herriak landa garapen proiektuaren kide da: bertan ekintzailletza eta bertako negozioei babes eta laguntza eskaintzen zaie. ◦ Espazio publikoen eraberritze eta erabilera berriak herriaren dinamizazioan laguntzeko. ◦ Herriko sare komunitario sendoa (elkartek, kultura, kirol jarduerak). ◦ Izaera handiko herria, bertan integratzeko aukera, tamaina txikia eta giro lagunkoia. ◦ Udalak etxebizitza aukerak bilatzen lagundu dezake.
Enplegu aukera: Zubimuxu Aterpetxea <i>Negoziaren ezaugarri nagusien, baliabideen eta aukerei buruzko deskribapen laburra.</i>	
<i>Datu orokorrak</i>	Zubimuxu Aterpetxea Goizuetako erdigunean kokatutako dago, XVI. mendeko eraikin batean, 2012an eraberritua. Negozio honek 30 plaza eskaintzen ditu, +4 plaza gehigarri, eta bost logela ditu: bi logela bikoitz, bi logela 10 plazarekin (5 literekin) eta bat 6 plazarekin (3 literekin). Logela bakoitzak bere bainugela eta dutxa ditu (bikoitzetan komun partekatua). Espazio amankomunak: sukaldea, egongela eta lorategia. Aterpetxe osoa, logela bat edo litera bat alokatzeko aukera dago, baita mantak eta toailak alokatzeko aukera ere. Urte amaieran, aterpetxea kudeatzen duen pertsonak bere jarduera uzteko asmoa du, beraz, negozioa beste pertsona edo talde bati uzteko aukera dago. Urteko alokairua: Gutxieneko zenbateko finkoa 864 eurokoa da, eta horri %5eko kopuru aldakor bat gehitzen zaio, erreserbetatik lortutako diru-sarreraren arabera. Alderdi ekonomikoak puntuazioan eragina izango du lizitazio-prozesuan. Aterpetxeak ez du etxebizitza aukerarik eskaintzen. Azpiegiturak eta baliabideak: - Logela bikoitzak eta literak. - Sukaldea eta egongela. - Lorategia eta kanpoko guneak. - Garbitegia eta espazio espezializatuak (yoga, tailerrak). - Wifi, aparkalekua, pet friendly aukerak. - Informazio turistikoa eta laguntza pertsonalizatua.
<i>Bezero segmentuak</i>	- Landa eta naturari lotutako turistak, familiak, bikoteak, oinezkoak, txirrindulariak, ikasleak, kultur erakundeak. - Bezeroak Euskal Herria, Espainia, Frantzia, Herbeherak, Hego Amerika eta beste herrialde batzuetatik iristen dira.

<i>Balio proposamena</i>	- Logela eta instalazio erosoak. - Jarduera kulturalak eta kanpoko jarduerak egiteko aukera. - Ekintza berritzaileak eskaintzeko aukera ganbaran: yoga, tailerrak, bisita gidatuak, esperientzia gastronomikoak,... - Alokairu merkea eta udalaren babesa.
<i>Kudeaketa</i>	- Erreserbak: webgune propioa, Booking, escapada rural. - Urte osoan ordutegi malgua izango da. Plangintza eta kudeaketa norberaren beharretara eta bisitarien fluxura egokituko dira. - Sistema erregistratzeko PMS (MisterPlan) erabiltzen da. - Bigarren pertsona baten laguntza garrantzitsua izan daiteke denboraldi gorenean, baina kudeatzaileak baloratuko du laguntzailearen beharra.
<i>Zeregin nagusiak</i>	- Logelen alokairua eta tarifen kudeaketa. - Gune komunak mantentze-lanak. - Bezeroekin harreman zuzena eta arreta pertsonalizatua. - Jarduera kultural eta kanpoko jardueren antolaketa. - Promozio turistikoa eta marketin digitala.
<i>Eragile gakoak eta lankidetzak</i>	- Tokiko hornitzaileekin lankidetzak (elikagaiak, jarduera gidatuak). - Plazaola Partzuergo Turistikoarekin eta tokiko erakundeekin elkarlana. - Plataforma digitaletan presentzia (Booking, Airbnb eta bestelakoak).
<i>Arriskuak eta kontuan hartu beharrekoak</i>	- Negozioaren jarduera handiena batez ere denboraldi zehatzetan izaten da (udak eta asteburu berezietan). - Ordutegiak eta kudeaketa malguak beharrezkoak dira, bezeroen iritsiera ordutegiaren arabera. - Lege eta baimenak betetzea: turismoari dagozkionak, eraikinaren erabilera, higieine eta segurtasun arauak
<i>Hazkunde aukerak</i>	- Negozioak eskaintza gastronomiko eta jarduera gehigarriak integratu ditzake. - Ganbara alokatzeko aukera dauka jarduera berezietarako. - Bisita gidatuak eta esperientzia kulturalak eskaintzea. - Promozio digitala indartzea, merkatu berriak lantzea.
<i>Lizitazio bidezko prozesua</i>	- Goizuetako udalak lizitazio publiko bidez esleitu du aterpetxearen kudeaketa. - Plieguak azaroaren lehenengo astean argitaratzea aurriztatu da. - Udal Batzarrak ebatziko du adjudikazioa.
<i>Lizitazioko irizpidideak</i>	- Proiektu teknikoa: gehienez 40 puntu. - Aspektu sozialak: gehienez 10 puntu. - Euskara maila: gehienez 10 puntu. - Eskaintza ekonomikoa: gehienez 40 puntu. - Guztira: 100 puntu.

<i>Kontratuaren baldintzak</i>	- Iraupena: 2 urte + luzapena gehienez 5 urtera arte.
<i>Kontaktua</i>	Goizuetako udala. Harrera ordutegia: 9:00-12:30 Tel. 948 51 40 06 udala@goizueta.eus http://www.goizueta.eus/eu